

# BANDOA (B8 -2022)

## GONDENDIAGAKO BENTA. AUZOLANA.

Berako herritar talde batek hala eskatuta, Berako Udalak ohar honen bidez auzolan baterako deialdia egiten du. Gondendiagako bentaren moldaketa hain zuzen ere.

Benta hau, “Benta Beltza” eta “Heidiren etxetxoa” ere deitua, 32. mugarrian dago, Lizuniagatik hurbil eta jabetza publikokoa da.

Azken hamarkadetan ez zaio erabilerarik eman, eta urteen poderioz eraikina kaltetzen joan da eta orain egoera tamalgarrian dago.

Helburua auzolanean benta berritzea litzateke, boluntarioek esku lana jarrita eta Udalak behar diren materialak ordainduz.

Gondendiaga natur ingurune zoragarria da, Bera eta Sara udalerrien arteko mugan kokatua.

Berako jendarteak oroitzapen hagitx onak ditu, benta horrek garai batean izan zuen jarduerari buruz.

Helburua eraikina berritu, eta erabilera publiko bat ematea litzateke. Mendizaleentzat aterpe hartzeko tokia izan ahal da, atsedean hartzeko tokia, jendearentzat naturaz gozatzeko elkargune bat eta abar.

Auzolan honen bidez, herritarren parte hartzea bultzatu nahi dugu. Lagundu nahi duen edozeinek partu hartu dezake, baldintza bakarra elkar lanean eta talde lanean aritzeko borondatea izatea da.

Espazio eta eraikin hau berreskuratuz, gure herriko ondarea zaintzen ari gara, denon ondarea alegia.

Ekimen honetan parte hartu nahi baduzu, deitu udaletxera eta eman zure izena: 948 630005.

Auzolanen egunen egutegi bat osatzen joanen gara aurrerago.

Animatu eta mila esker auzolan hau antolatzeko ekimena izan duzuen guztioi.

Bera, 2022-04-25.

SINADURA DIGITALA. ALKATEA,  
Aitor Elexpuru Egaña.